BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

244

AGINDUA, 2014ko urtarrilaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko den Agindua aldatzen duena.

Agindu honetan huts teknikoak atzeman dira: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko abenduaren 26ko Agindua, 2014. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Euskalgintza deialdia). Agindua 2013ko abenduaren 31n eman zen argitara, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 248. zenbakian. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Aipatu aginduaren 5. 2. m) artikulua ezabatzea eta, ondorioz, honako hurrenkera hau ezartzea:

"m) Dantza, ikus-entzunezkoak, antzerkigintza... sustatzea helburu duten egitasmoak.

n) Webguneak sortzeko eta elikatzeko egitasmoak."

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 8a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.